

UDALAK 2013ko ABUZTUAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Antonio Sanchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

2013ko abuztuaren 27an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2013-02-26 ETA 2013-07-30. - 2013ko ekainaren 18an egindako bileraren akta onartu da. Talde sozialistako zinegotziak eta EAJ/PNVkoak abstenitu egin dira, atzerapen handiz aurkeztu denez bilera hartan gertatu zenaz oroitzen ez direlako.

Idazkariak esan du atzerapena gertatu dela akats bat izan delako, bere garaian gaixotasun baja batekin kointziditu zuena, eta erabakiak martxoaz geroztik zeudela jakinaraziak.

2013an egindako bileraren akta ez da aurkeztu.

2.- 2013KO UZTAILAREN 23TIK 2013KO ABUZTUAREN 22RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. – 2013ko ekainaren 14tik 2013ko uztailaren 22ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

* Alkate jn.

- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

Gero alkate-lehendakari jaunak 2013ko uztailaren 30ean egindako bileraren berri eman du.

“DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamahiruko abuztuaren hogeita seian.

2012ko irailaren 21eko Ebazpen bidez Iker Goenaga Gubia zinegotzi kargua arduraldi partzalean betetzeko izendatu zen (%30eko) arduraldia, 8.733,80 euroko urteko soldata gordina, 14 hilerokotan jasotzekoa).

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

- 1.- Iker Goenaga Gubia zinegotziari emandako arduraldi partziala ezabatzea eta Gizarte Segurantzaz baja ematea 2013ko abuztuaren 26ko datarekin.
- 2.- Hurrengo osoko bilkuran ebazpen honen berri ematea.”

“DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamahiruko abuztuaren hogeita seian.

Indarrean dagoen Hernaniko udal plantillan eta lanpostuen zerrendan behin behingo langileentzat komunikazio arduradun lanpostua azaltzen da.

2012ko azaroaren 19ko DKPS20121109 alkate dekretuz Aritz Aira Urruzola udal honetako behin-behingo langilea izendatu zen, komunikazio arduradun izaeraz eta lanaldi erdian.

Aztertu da Alkatetzatik egindako txostena.

Eman zaizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau.

ERABAKI DUT:

- 1.- Aritz Aira Urruzola andreari, komunikazio arduraduna, bere lanaldia %50tik %100era luzatzea, 2013ko abuztuaren 26ko data hartuta erreferentziatuz.
- 2.- Aipatutako langileak eginkizun horiek utzi beharko ditu Alkatetza honek ebazpen bidez hala erabakitzen duenean eta, nolahi ere, nire kargua uzten dudanean edo agintaldia bukatzen denean.
- 3.- Erabaki honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesatuari honen berri ematea.

4.- Hurrengo Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea.”

3.- UDALBATZARI BERRI EMATEA, HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAN 4/2013 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITUEN TRANSFERENTZIA BIDEZKOA. – Alkatetzak 2013ko abuztuaren 21ean emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez 4/2013 zenbakiko kreditu aldaketako espedientea (30003 erreferentzia) onartu zen, Hernaniko Udalaren 2013ko aurrekontuaren partiden arteko transferentzia bidezko kopurua: 16.439'00 euro.

4.- UDALBATZARI BERRI EMATEA, HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAN 5/2013 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITUEN GAIKUNTZA BIDEZKOA. – Alkatetzak 2013ko abuztuaren 21ean emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez 5/2013 zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen (40001 erreferentzia), Hernaniko Udalaren 2013ko aurrekontuaren kredituen gaikuntza bidezkoa. Kopurua: 203.061'88 euro.

5.- BATZORDE INFORMATZAILATAN BILDUREN ORDEZKARI DIREN BATZORDEKIDEEN ALDAKETA BERRI EMATEA.Alkate eta Bilduko bozeramaileak jakinarazi du Bilduk batzorde informatzaileetan dituen ordezkariak aldatu egingo dituztela. Hauek izango dira:

BATZORDEEN OSAKETARAKO BILDUREN IZENAK (eta ordezkoak) 2013-08-27

- Pertsonala:

Luis Intxauspe (Iker Goenaga), Idurre Conde (Aitor Miner), Asier San Emeterio (Beñat Amenabar) eta Gloria Mendinueta (Kistiñe Lujanbio)

- Ogasuna eta ondarea:

Luis Intxauspe (Iker Goenaga), Gloria Mendinueta (Idurre Conde), Asier San Emeterio (Kistiñe Lujanbio) eta Aitor Miner (Beñat Amenabar)

- Zerbitzu publikoak eta merkataritza:

Luis Intxauspe (Iker Goenaga) Asier San Emeterio (Beñat Amenabar), Idurre Conde (Gloria Mendinueta) eta Aitor Miner (Kistiñe Lujanbio)

- Hirigintza eta ingurumena:

Luis Intxauspe (Iker Goenaga), Gloria Mendinueta (Kistiñe Lujanbio) , Asier San Emeterio (Aitor Miner) eta Beñat Amenabar (Idurre Conde)

- Hezkuntza eta enplegua:

Kistiñe Lujanbio (Gloria Mendinueta), Beñat Amenabar (Aitor Miner), Asier San Emeterios (Luis Intxauspe) eta Idurre Conde (Iker Goenaga)

- Kultura eta turismoa:

Luis Intxauspe (Idurre Conde), Asier San Emeterio (Aitor Miner), Gloria Mendinueta (Kistiñe Lujanbio) eta Naiara Sanchiz (Beñat Amenabar)

- Euskara:

Luis Intxauspe (Kistiñe Lujanbio), Idurre Conde (Asier San Emeterio), Naiara Sanchiz (Aitor Miner), eta Gloria Mendinueta (Beñat Amenabar)

- Politika soziala:

Luis Intxauspe (Beñat Amenabar), Gloria Mendinueta (Kistiñe Lujanbio), Idurre (Asier San Emeterio) eta Iker Goenaga (Aitor Miner)

- Hernani parte-hartzea:

Luis Intxauspe (Iker Goenaga), Kistiñe Lujanbio (Gloria Mendinueta), Asier San Emeterio (Beñat Amenabar) eta Idurre Conde (Aitor Miner)

- Kirola:

Beñat Amenabar (Luis Intxauspe), Asier San Emeterio (Kistiñe Lujanbio), Aitor Miner (Gloria Mendinueta) eta Idurre Conde (Iker Goenaga)

- Giza eskubideak:

Luis Intxauspe (Asier San Emeterio), Gloria Mendinueta (Idurre Conde), Beñat Amenabar (Aitor Miner) eta Kistiñe Lujanbio (Iker Goenaga)

6.- HAINBAT UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LUZAPENA. - Udaleko hainbat eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua urte batez luzatzearen (2013/09/01 – 2014/08/31 arte) proposamena ikusita,

Kontratuaren esleipendunak, COMERCIAL DE LIMPIEZA VILLAR, S.L. enpresak eginiko luzapen-eskaera ikusita,

Administrazio baldintza berezien agiria, fiskalizazio ekonomikoaren txostena, eta Kontratu Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako errege-dekretuaren aldi baterako 2. xedapenak eskatzen duen txosten juridikoa ikusita,

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2013ko abuztuaren 8an amandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho barez:

- 1.- Aipatutako kontratua beste urte batez luzatzea, 2014ko abuztuak 31 arte, hain zuzen.
- 2.- Kontratuaren prezioaren eguneraketa 2013ko irailaren 1etik aurrera egin dadila (EAEko abuztuko KPI x %85a aplikatuz.

7.- HERNANIKO UDALERRIKO ASTEROKO FERIAREN ARAUDIAREN ALDAKETA. - Hernaniko Udal Osoko bilkurak, 2012ko abenduaren 20an egindako bilkuran, "Hernaniko Udalerriko asteroko feriaren araudia"ri, behin betiko onarpena eman zion, 2013ko urtarrilaren 4an GAOn argitaratu zen.

Lehendakariak, 4, 5, 9, 18, 19, 20 eta 30 artikulua aldatzeko proposamena aurkeztu du; proposamen hau aipatutako araudia aplikatu behar duten pertsonak aurkeztu dute.

Idazkariak 2013ko abuztuaren 9ko datarekin txostena egin du.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2013ko abuztuaren 20an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- Hasierako onarpena ematea "Hernaniko Udalerriko asteroko feriaren araudia"ren ondoko aldaketei:

- 4 artikulua: Lehenengo zatiaren atzetik, eta ordutegiaren aurretik, ondoko zatia jartzea:

"azokako postuen banaketa eta antolaketa horrela egingo da:

* 1etik 35erako postuak: Telak, oinetakoak eta osagarriak.

- 36tik 80rako postuak: Janariak, tresnak eta garaian garaikoak.

- 5. Artikulua: Horrela gelditzen da:

5. ARTIKULUA.- Feriara salmenta postua jartzeko finkatua dagoen ordutegiaz kanpo etortzen den saltzaileak bere merkantziak eskuz eraman beharko ditu aparkatzeko izendatutako eremutik salmenta postura, salmentarako mahai gisa moldatutako ibilgailuak ez badira, behintzat.

- 9. Artikulua: Horrela gelditzen da:

"Egunen batean postua jartzeko asmorik ez badago Udalarri aurrez horren berri eman beharko zaio, behar bezala arrazoituta.

- 18. Artikulua d) atala: Horrela gelditzen da:

"Elikagaien salmentaren kasuan, elikagaiak manipulatzeko txartela."

- 19. Artikulua- 1-B zatiko bigarren atala horrela gelditzen da:

"Bi zerrenda osatuko dira talde banaketaren arabera, araudi honetako 4. artikuluan jasotakoari jarraituz."

- 19. Artikulua- 1-C, hirugarren atala horrela gelditzen da:

"Libre gelditzen den postua eskainiko zaio, itxaron zerrendan produktu bera saltzen duen aurrenekoari, araudi honetako 4. artikuluan jasotakoari jarraituz."

- 19. Artikulua- 1-C azkeneko atala, horrela gelditzen da:

"Libre gelditzen den postuari uko egiten diotenak, itxaron zerrendako azken postura pasako dira, Hernanin erroldatuak egon ala ez".

- 20. Artikulua- Horrela gelditzen da idatzita:

Baimendutako pertsona guztiei identifikazio txartel bana emango zaie eta bertan datu hauek agertuko dira:

- Jabearen izen abizenak.
- Salmenta baimenaren balio epea.
- Baimendutako produktuak.
- Salmenta postuaren zenbakiaren kokapen finkoa.
- Baimenaren data.

Identifikazioak bistan egon beharko du denbora guztian, salmenta postuko leku ageri batean, eta Udaleko agintariak saltzaileari hura erakusteko eskatzen badiote hark erakutsi egin beharko die. Saltze lanetan postuaren titularra ez den beste pertsonaren bat ari bada, hari bere identifikazioa eskatu ahal izango zaio, bai eta postua ustiatzeko eta titularra ez den beste pertsona bat saltzen aritzeko baimenak erausteko ere.

- 38. Artikulua: Horrela gelditzen da:

Udalak postuen %10 garaiko produktuen salmentarako esleitzeko aukera dauka.

Garaian garaiko produktuak dira urteko denboraldi finko batean produkzio handiagoa daukatenak.

Garaiko postuen salmentarako denboraldia hauxe izango da:

- Gutxienezko 2 hilabete eta gehienezko 6, urte barruan.

- 2.- Aldaketak jendaurrean ikusgai jartzea, 30 egunez, interesa duen edonork beharrezko ikusten dituen erreklamazio, alegazio eta oharra egin ditzan.
- 3.- Epe horretan erreklamazio, alegazio edo oharrik egiten ez bada, behin betiko onartu dela ulertuko da eta Testua Osorik GAO-n argitaratuko da.

8.- HERNANIKO HK GA (GALARRETA INGURUA) ZONALDEARI IZENA EMATEA. - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2013ko abuztuaren 8an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Aipatzen diren Galarreta inguruko zonalde berriei, ondoko izenak ematea:

- * **(HK) GA 05: EKOGOR** (gaur egun Orona burutzen ari den eraikina).
- * **(HK) GA 07: ESTUBEGI** (Oriamendi aldapa igo eta eskuinetara. Gaur egun "estación de bombeo" kokatuta dagoen zonaldea.
- * **(HK) GA 08 eta (HK) GA 09: LIMURI** (Oriamendi aldapa igo eta ezkerretara. Aintzinean Young Play dantzalekua kokatuta zegoen eremua).

- 2.- Aipatutako akordioaren berri, "Galarretako Kontzertazio Juntari" jakinaraztea.

9.- TXANTXILLA AUZOKO PARKEARI IZENA EMATEA. - 2013ko ekainean Elias Querejeta zineko zuzendari Hernaniarraren heriotzaren ondorioz, Udaletxe honetako Osoko bilkurak proposatu zuen Hernaniko plaza bateri bere izena jartzea. Aipatu zen, gazte denboran, Txantxilla inguruan bizi izan zenez, egokia izango litzatekeela hori kontuan izatea.

Aztertu da Zerbitzu Publiko Eta Merkataritza Batzordeak 2013ko abuztuaren 8an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Egungo Txantxilla auzoan kokatua dagoen parke berriari, "Elias Querejeta" parkea izena jartzea.
- 2.- Aipatutako akordioaren berri, Elias Querejeta familiari bidaltzea.
- 3.- Aipatutako parkean ekintza ofiziala burutzea plaka jarriaz, eta bertan baita Elias Querejetaren familia egotea ere.

10.- "HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOKO ZUZENDARITZA TALDEA BERRITZEKO PROPOSAMENA. –
Aztertu da Pertsonal Batzordeak 2013ko abuztuaren 13an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- Miren Elixabete Irigorri Aldanondo eta Miren Elixabete Insausti Arrizabalaga Hernani Musika Eskola Publikoaren zuzendari eta idazkari izendatzea, hurrenez hurren. Hona hemen izendapenaren baldintzak:

- 1.- Agintaldia: 2013ko irailaren 1etik 2015ko abuztuaren 31ra.
- 2.- "Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudian" aurreikusita daude bien zereginak.
- 3.- Miren Elixabete Irigorri Aldanondo andreak, zuzendari kargua dela-eta, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 17. mailako soldata jasoko du, eta astean 8 eskola orduren lan murrizketa legokioke (lanaldiaren %40) zuzendaritza orduak betetzeko, baina kontutan izanda 2013-2014 ikasturtean Joxan Goikoetxea Maritxalarren ordezkapena eginaz lanaldiaren %40a beteko duela (8 eskola ordu), eta Miren Elixabete Insausti Arrizabalagaren ordezkapena eginaz lanaldiaren beste %10a (2 eskola ordu), guztira 10 eskola ordutako lanalditzat aurreikusitakoa (lanaldiaren % 50a), lanaldi hau 8 eskola ordu horiekin osatzea, hau da, %90era igotzea.
- 4.- Miren Elixabete Insausti Arrizabalaga andreak, idazkari kargua dela-eta, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 15. mailako soldata jasoko du, eta astean 2 eskola ordu izango ditu izendatutako lanpostu honetan aritzeko. 2 eskola ordu horiek, dagozkien ordu ez lektiboekin, Miren Elixabete Irigorri Aldanondo andreak beteko lituzke.
- 5.- Miren Elixabete Irigorri Aldanondo andreak, Udaleko funtzionarioen plantillako irakasle titularra ez denez, agintaldiak irauten duen bitartean aldi baterako irakasle izateari utziko balio, zuzendari izendapena besterik gabe baliorik gabe geratuko litzateke.

11.- GALDERAK ETA ESKARIAK. - Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) galdetu du ea, ikasturte berria hastera doan honetan, Urumea Ikastolako Gay Mur eraikinaren patioa estaltzea pentsatuta ote dagoen edo, nolahi ere, horretarako dirulaguntzarik eskatzeko asmorik ba ote dagoen.

Alkateak esan du Hezkuntza Ordezkaritzarekin harremanetan daudela eta obren planteamendua egi-ten dutenean aztertuko dutela. Eta gogorarazi du Guraso Elkartearekin eta Berriarekin aparkalekua eta patio inguruak hobetze aldera hartutako akordioa gauzatu dela.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:18 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.